

Heriotza Beltzak berdinduta

NAFARROAKO ERRESUMA, 1348KO MAIATZA ETA EKAINA. Izurri Beltza erresuman sartu zen, iparraldetik. Aurreko urteetan ohi baino euri gehiago egin zuen Nafarroan; ondorioz, 1346 eta 1347ko uztak oso kaxkarrak izan ziren eta goseteak hartu zuen erresuma. Epidemia zabaltzeko inguru ezin hobea aurkitu zuen: nafarrak goseak ahulduta zeuden eta hezetasun eta tenperatura baldintzek hedapena bizkortu zuten.

Zaila da Heriotza Beltzak zenbat hildako eragin zituen kalkulatzeko. Europarren %30 hil omen zituen, hau da, 25 milioi pertsona inguru, eta beste 40-60 pertsona Asian. Portzentajea handiagoa izan zen Nafarroan; Peio J. Monteano historialariaren arabera, biztanleen erdiak hil ziren izurriak jota, 140.000 pertsona inguru.

Horrenbestez, Nafarroa Izurri Beltzak gogorren jotako lurraldeetako bat izan zen. Baina urte horietan, ez erresuma goseak zigortu zuenean, ez epidemiak errematatu zuenean, Nafarroako erregina ez zen bere erresumara hurbildu ere egin.

1328an, Nafarroako eta Frantziako errege Karlos hil zenean, ondorengotzari buruzko eztabaida piztu zen. Nafarrek Frantziatik bereizteko baliatu zuten egoera hura, eta maiatzaren 1ean gortek Nafarroako errege-erregina izendatu zituzten Luis X.a Frantziakoaren alaba Joana eta haren senar Filipe Evreuxekoa. Filipe VI.a Frantziakoak koroatzea onartuko zuen, baldin eta



Izurri Beltza, Toggenburgeko Bibliaren arabera (1411). Izurriak 140.000 nafar inguru hil zituen, horien artean Joana II.a erregina.

senar-emazteek Frantziako tronuari betiko uko egiten bazioten. Azkenean, baldintza onartuta, 1329ko martxoaren 5ean Nafarroako Joana II.ak eta Filipe III.ak karguaren zina egin zuten Iruñean. Joanak erresuma lehenengoz eta azkenekoz zapaldu zuen orduan.

Filipe III.a beste behin izan zen Nafarroan, 1343an. Alfonsito XI.a Gaztelakoaren aliatua izanik, Iberiaer penintsulako Errekonkista parte hartu zuen Nafarroako erregeak. Nafarroan armada bildu

eta Granadako Erresumara abiatu zen berehala. Urte hartan hil zen, Algecirasko setioan.

Senarra hil ondoren Joana II.ak Nafarroan agintzen jarraitu zuen, urrutitik, posta bidez. Ez zen sekula Nafarroara itzuli. Parisetik gertu bizi zen, Brévaleko gazteluan. Ez zen toki txarra Izurri Beltza saihesteko. Epidemia herritar txiroenei eragin zien bereziki, osasun ahulena zutenei, hiribilduetan metatuta higie baldintza kaxkarretan bizi zirenei. Bere erresumatik mila kilometrorra, gazteluan bakartuta, erreginak heriotza engainatzeko aukera handiagoak zituen bere mendekoei baino, itxura batean. Baina 1349ko urriaren 6an hil zen hura, gaitzak jota.

Heriotzak denak berdintzen omen gaitu. Heriotza Beltzak behintzat Nafarroako erregina absentea bere mendekoen erdiekin berdindu zuen. ■



Arrastoak

Viva V.E.R.D.I.



GIUSEPPE VERDIK *Nabucco* opera estreinatu zuenean, 1842an, Garibaldi, Vittorio Emanuele II.a Saboiakoa eta haien jarraitzaileak Italia batzeko ahaleginetan ari ziren. Eta Verdik, nahi gabe, austriarren aurkako borroka horri soinua jarri zion *Nabucco*ri esker; “Va pensiero, sull'ali d'orate” italiar *risorgimento*aren himno bihurtu zen. Eta kaleak

“Viva Verdi!” oihuz eta pintaketaz bete ziren. Baina leloak ez zuen soilik konpositorearekiko zaletasuna adierazten; austriarren zentsura saihesteko akronimoa zen. Benetan, “Viva Vittorio Emanuele Re d'Italia” esan nahi zuen. Leloa adierazitako nahia 1861ean gauzatu zen, Vittorio Emanuele Italia batuko errege izendatu zutenean. ■